E.- Ez dakit, ez zait iruditzen egokia zenbatzea zer egin den; urbanizazio mailan egin da, baina ez zait iruditzen bidezkoa zerrenda bat egitea. Nik zer esango dut, jendeen kezkak eta parte-hartzeak dutela garrantzia. Demokrazia esaten denean, prolema latza dela uste dut pasibitatea. Jarrera aktiboagoak lortzen kristoren lanak ditugu.

Ez naute kezkatzen azaleko gauzak. Nahi duguna da jendea etor dadila Udaletxera beren kezka eta proposamenekin. Jendea ez da arduratu behar, printzipioz, zenbateko aurrekontua dugun eta horiekin, *"guk ere hobera egin nahi dugu"* esatera baizik. Ahal balitz, hobe proiektu edo idea batzu aurreratuta dakartzatela. Hori da garrantzitsua.

G.-Goazen Zaldibiatik Goierrira. Gauzak amankomunatuan egitera goazen iritzikoa zara?

E.- Uste dut bailada mailan koordinatu eta antolatu litezkeen gauza asko daudela. Adibidez, zabortegiarena. Horretan eztabaidagarria dena ez da eskualde mailan egitearena, egiten ari den bezala egitea baino. Aralarko mankomunitatea lehendik datorren zerbait dugu. Horiek hor daude.

Bestalde, gai batzu erresolbitu litezke ekonomikoago amankomunean. Badago beste herri-arteko antolamendu zenbait hortik, goiko Goierrin badago halako parlamentu txiki bat, proportziozko parte-hartze batekin. Alde horretatik Goierrin ez dugu ezer askorik egin. Esate baterako, Gipuzkoa mailako Ur eta Saneamendu Plan Integral hori bera: hor harrapaturik gaude denok, gure erantzun amankomunala beharko luke horrek.

Ur hornikuntza

eta saneamendua

Honetara iritsirik, plan berri hori datorrela eta azken urteetan eginiko zenbait obra nahiko alferrik ez ote diren egin aditu dugula eta gai honek luze jotzen digu. Duela zortzi urte Zaldibiako ur beltzen sarea antolatu (54 milioi) eta eginiko depuradora mapatik desagertuko omen da, Itsasondoko etorkizuneko depuradorara kanalizatuko direla ur beltzak. "Horrek zer dakar? Gastatutakoak ia alferrik gastatuak izateaz gain, ekologikoki errekondoak kristo eginda gelditzen direla. Enpresen isurkinak ez badira erregulatzen ez dago zer eginik".

"Goierrin ez dugu ezer askorik egin amankomunean"

Bertako depuradora martxan jartzearen aldekoa da; baina ez dute dirulaguntzarik izan Diputaziotik. Gizartearen hazkundea dela eta saneamenduarena arazoa latza dela uste du, Aristrain eta Bilore enpresen xehetasunak ematen dizkigula.

Ur abastezimenduari dagokionez, gauzak atzekoz aurrera egiten ari ote diren susmoa. Lareo eginik eta Arriaran eta Baliarraingo Ibiurko presak proiektaturik, ur zikinak estaltzeko enbaltseetaz mintzo zaigu. Zaldibiako Arkaka urperatzea gaizki ikusiko litzatekeela diosku, diruarekin pagatzen ez den balioa bait du guztiontzat ere.

"Saneamenduari soluziobiderik eman gabe, ur horniketa planteatzen da. Neurriak hartzen ez diren bitartean askoz ur gehiago behar dugu. Ur erabilera, kontsumoa eta depuratu beharrekoa zenbatekoa den jakiten dugun heinean, jakingo dugu zenbat behar dugun". *Ur-politika orokorra eta ikerketak behar direla deritzo.*

Gai honekin bukatzeko, Ente Autonomo Vascongadak konpetentziak ez dituela uraren baitan, MOPUk baizik eta nolabait beste konpetentzien eta gastuen partea Udaletxeei eman nahi dizkiela diosku Migelek. Estatutuak, e.a. antolatu behar dira eta Gipuzkoa mailako plan hori monstruosidadetzat jotzen du, hobeto iruditukо litzaiokela, arrazionalagoa eta orekatuagoa bailadaka edo arroaka egitea estudioak, zuzenagotik.

G.- Bukatzeko, alderdiko gizona zara eta HBk gora egin edo eutsi egin dio Goierrin. Zer derizkiozu?

E.- Gure mogimenduaren izatean hori da inportanteena: botoak lortzea oso presentablea izango da Europari begira eta daukan presentziari eustea ondo dago. Baina eragin soziala eta antolamendua edukitzea da erabakiorra.

Mikel Aramendi

IDI-DEMEI UZTARTUTAKO GOIERRITAR HONEK MAKINA BAT ARRAKASTA ETA SARI ESKURATU ARRASTARAN BERE BIZITZAN

"Argoain": "Idiek ez zekitek itzaia zahartu denik"

BEASAINGO Garin auzotarra da Juan Regil, "Argoain" baserrikoa eta izenorde bera daramana. Lehenagotako itzai kastakoa, ganadu-tratantea urteetan eta oraindik ere —68 urte betetzen dituelarik aurten—, eta idi-probetako Goierriko gizon sonatuena. Halako itzai onaren fama badu inguru guztiotan. Ezkondua da eta hiru seme alaba ditu, ordiziarturik.

Gaztetan baserri-lanetan, idiekin (eta baita behiekin) basoan eta guzti horietan aritua, ganadu tratoan sartu zen gerora. Hortik hasi eta bueltan segi idi probetan. Elkarrizketetara batere ohiturik ez dagoen zantzuak hartu dizkiogu. Beharbada, hitz gutxiko gizona izango da, baina sententziosoa, idea propioak dituena, harian sartutakoan manejatzen badakiena, hori bai.

Bere gazte denboran, gerra ondorenean, lujo handirik ez zen izango, ***lana beltz eta jana me.*** Gerora hasi zen Argoain plazaratzen, 40taka urterekin. ***"Egurra basotik ea nork lehenago karreatu edo zer edo zer horrelakoren bat egingo genian. Baina gure gaztetako hasiera izan huen idi pare bat kanbiatu garesti xamar, saldu ezin eta handik hasi gintuan probalekuz-probaleku. Orduan anaia ere etxean zegoan eta idiak preparatu hark egiten zizkian. Gure lana hala izan dek, urte batzutan ondo. Hemen itzaietan gehiena gure anai Migel, gehiena jokatu zuena ere bera, ni baino gehiago".***

Berriketa gutxiko gizon sendoa dugu Argoain.

"Agintzen gizon naturalik ez"

Baina aurretik tratua, tratua. Ganaduan, denetatik: txekorrak, behiak, idiak; zaldirik eta kabaileriarik ez. Animalietan bitxikeria handirik ez du ikusi aidanez, ***"bi burukorik eta hola ez behintzat".*** *Tratantetzan Bitori, Burgos eta Galiziatik ere ibili izan da behin baino gehiagotan. Hemen hezi eta hazi arazi ganadua eta kanpoan ahalbait saldu. Torrelavegatik eta... Hemengo abel-ferietan, Santaluzi, Tolosa eta ezer gutxi gehiago kontatzeko modukoa.* ***"Ganaduaren tuberkulina kanpaina eta kristorekin denak gastatu dizkik. Hemengo periak galdu hituan. Hemen ba al dakik zer dagoen? Sanidadea, lujoa- eta. Agintzen gizon bat naturalik ez zegok eta alperrik dek orain; agintzen dutenak zeudek danak igoalak: merkeago jan behar dela eta hemendik Tolosako mataderira txala bakoitza eramaten eta ekartzen bi mila duro pagatu behar. Lau urte dituk Ordiziko hiltegia itxi zutela, ederki zegoena itxi eta izurra hadi! Tolosakoarekin ere hotsak badituk".***

Arrastakakoan, prestaketa

Ganaduzaletzak eraman du gizon puska hau idia zertxobait ezagutzera. ***"Zertxobait, ze idia ezagutu, inork ez dik ezagutzen erosteko garaian. Hori gero, ondo ateratzen bada".*** *Idiak ere engainatzen ote duen galdetutakoan, filosofiko asko,* ***"zeinek ez du bada engainatzen? Hemen edozeinek iruzur. Aurretik nik ez diat ezagutu ezer, batzuk ezagutuko die igoal...",*** *bota digu.*

Ikuilu propioa izan du betidanik Argoainek, Garinen aurrena eta Ordiziako San Juan bidean gero. Hori baieztatzeko erdi-galdera egindakoan, ***"bai, ganaduarentzako beharrezkoa duk ikuilua",*** *honen errespuesta ironiatsua. Sorna eta sokarroitasun gainezka ageri zaigu elkarrizketa osoan zehar.* ***"Kolore bat izan edo bestea izan, idia ona izatea, indarra dek hor. Idia nolakoa den? Lau hankakoa...!".***

Idiaren eta itzaiaren arteko keinurik edo konpenetraziorik ba ote dagoen galdetua izatean, ***"Proban dabilela beti ezagutzen dek zein den, batzuk borondate gehiago diate, beste batzuk akuilatu beharra ditek, hori ondoen itzaiek antzematen die, jokatzen ari danak",*** *diosku Joan Regilek.*

"Itzaiak indarra beharko egin, danak egin behar han, egingo bada. Hori beti arrastakako lana izaten duk. Hor ez zegok kurpilik!", *esanez, idi proben manejuak nahiko utziak dauzkala dio,* ***"zahartu egin gaituk eta beharko utzi orain. Zahartu ezkero etzeok: idiek ez ditek ezagutzen itzaia zahartu denik. Idiak preparatu egin behar dituk, eta horretarako gogoa eta amor propioa behar dik. Orain ez dagoena, ez gure etxean, ez gehienetan. Horik preparatu ezean onik ez dek, preparatuta ere txarrak asko".***

G.- Probalekutan parte hartzeko erabakia nola hartu zenuen?

E.- Nola hartu?! Tokatu parean --haizea izaten duk bada...--tokatu parean eta segi!

G.- Herri-kirola bilakatu dena aurrena lana izango zen, noski.

E.- Hori dena lana duk. Hor ondo ibiltzeko denak egin behar ditek ondo preparatu. Bai gizonek eta bai beste ganaduak. Fubolistak ere bai, ez juergan ibili, gaur jendeak egiten ez duena. Korrikariari zer egin arazi behar zaio?: belarra ebakitzen ibili ala korrika? Entrenamendua. Gazteak eta sasoikoak sartu behar dituk idizainak. Ikusgarria duk eta gustatu egin behar dik; gazteak probak ikustera joaten dituk baina idiekin probatzeko kontu gutxi. Gazteak nahiago dizkik fubola eta sala-fiestasak.

G.- Iaz Goierriko idi-demen berpizte saiotxo bat-edo egin zenuten, Olaberriko probalekua zela lekuko. Zer moduz?

E.- Han izan ginen bai, hemen bertarako esibizioa egiten. Zumarragako belarretak irabazi zuen. Ekartzea, beti ere gertuagon hobe duk urruti baino. Honek indar hartuko balu, hori beti duk bentaja, baina zaila hemen. Horri indarra emateko behar dik sasoia. Orain guk ez duguna.

G.- Zein da zein idi-dema asuntuetan?

E.- "Markinako Lehoia" oraindik badabil, hura, harek itzai jokatzen du besteen idiekin; orain ere hoberena hura; Alustiza, "Ikatza", Ormaza, Arruti Aiakoa, Iraetako Lopena gaztea-ta.

Argoainekin batera kopa jasotzen, ia tapatua, "Urtain", morroskoa; "Urtain itzaitzan ere ibili huen, Usurbilen jokatu eta irabazi nioan. Bere aita semea baino itzai hobea zuan".

G.- Aldaketarik bai herri-kiroletan? Kirola jeneralean ustelduta badago, nola dago kirol-errurala?

E.- Preparazio pixkat gehixeago bada, adelantu gehiago; gauzak hobeto edo gaizkiago tajutuko die igoal baino preparamentu gehiago. Artifizio gehiago da, eta kaltetarako ez bada! Dopina kaltetarako izango dela derizkiot, luzarora. Bestela betiko moduan, euskaldun jendea eta baserritarra ibiltzen duk plazetan.

Herri kirola ustelduta al dagoen? Partehartzaileei 10.000 pezeta ematen zaie porterako. Aurrena ateratzen denak 10.000 duro izango ditu igoal, bigarrenak bost edo sei mila duro eta hola. Bestalde, jokatzen da dirua bai, korredoreak hartarako ibiltzen dira. 20-30 korredore ibiliko dira igoal. Dena dela aizkolarien arteko apusturik adinakorik ez da, adibidez. Azken hauek gastua ere gehiago dute egurrak egiten duena medio.

Apustuan, jeneralean, pasatzen da irabazten duena beti gustora gelditzen dela eta galtzen duenak tartean tranpa dagoela esaten duela beti, edozein kiroletan. Beti

Ezjakinarentzat

10 bat proba irabazi zituen bere garaian Argoainek; orain 20- 24 urte ibili zen gehienbat eta anekdota asko ahaztu zaizkio. Gipuzkoan baino gehiago Bizkaian ibilia, Elorrion 2 aldiz txapeldun, Berriz-en 3 aldiz, Laudion ere eta Maurin 44 bikoteen aurrena. Azkoitian irabazia da 2-3 aldiz, Aian behin, Urnietan, Ordiziako Billafrankan...

Idi hoberenak zituenean bat erren tokatu eta Illarragako Santiagok kendu zion Bizkaiko txapelketa orain 22 bat urte. ***"Ni idi pare batekin ibili nauk beti, hobena ere erren eta beste batenakin joan nitxoan".*** *Azkoitian, 8 egunetan kanpeoi izan zen eta azkenekoan Santuaranek kendu zion urte hartako txapela. Espainiako kanpeonatura joatea ez zitzaion tokatu.* ***"Hori suertea izaten duk. Musean ere hala duk: Espainiako kanpeonatuak urteero jokatzen dituk orain eta orduan jokatzen hituen 3 urtetik behin-edo. Bestela suerterik ez, egin egin behar dik aurrena ateratzeko".***

Herri kiroletaz ezer gutxi dakigula azaldu eta esplika diezagun eskatzen diogu garindarrari. Probetan batzuetan lehian sartzen direnak 20 idi pare omen dira, beste batzuetan 30, 40 ere igoal. 44 eta 45 ere izan omen dira bai eta. Bakarka ere jokatzen da baino premiotan gutxi bakarka. Noiz edo noiz baino gutxi.

Bizkaialdeko idi-zaletasuna hemengoa aineko hamarrekoa da aidanez. ***"Apizio gehiago dagoelako. Hemen bultzadarik baterez eta nola izango duk bada? Lehen plazetan denetan huen harria, danak kendu zizkien. Baskula ere bahuen lehen Ordizin ganadua pisatzeko-eta; saldu zien, pentsazak! Hemen bahituen lehen idi probarako harriak, auskalo non dauden! Gipuzkoan ez zegok ia apiziorik, Aian piska bat, Azkoitin beste piska bat, Deba beste plaza on bat, Tolosan ere batere ez, gainantzean zero. Beasainen ere bazuan harrizko plaza, Zumarragan eta Billarrealen, bitan da gainera, Billabonan, Donostiko Trinidade plaza -han ere aterata nago lehena--, orain ezer ez. Lezon eta hor beheran batzuk badaude, Oiartzun eta Errenderik hemen baino gehiago".***

Proba-Harriak 2.000 kiloko harri pisatuak dira. Idiak ere pisatu eta gehien pisatzen duenak kontrapisua hartu behar izaten du. Idiok lehen 1.050 kilotan eta egun 1.100 kilotan ibiltzea dute legea.

bada zer esana, gero ere izango da hori, e!

G.- Bukatzeko, izango dezu pasadizoren bat goierritarrentzako...

E.- Bai. Jokalariren batek egindako amainua. "Antzua" eta gu gintuan onenak. Hor ibiltzen gintuan bat batean eta bestea bestean. Hiru anai bagintuztean gu orduan ere, lau igoal eta Berriz-en gaudela, idi bat mozkortu zigutean, jokatzera joateko zai ikuiluan zegoela. Ganadua ikustera joan gaituk eta idia bakarrik utzi. Tarte hura aprobetxatu zien. Otalidon mordoa, droga, ko+akada galantarekin. Bihotza batere mogitzen ez zuela geratu huen. Gero, plazara joateko gauza ez idia eta arrastaka kamioira kargatu eta etxera ekarri nian. Bi egun egon huen altxatu gabe. Sendatu genian eta halako batean altxatu dek: handik 20 egunetara Abadianora joan gintuan probara. Berriz-en "Antzua"k egin zian aurreneko eta desafio bezela, Abadianokoan aurreneko egin genian. Halako idi batek, konparaziorako, gaur milioi bat pezeta balio zetuk. Nik merke erosi nian. Azpeitialdean probaketan ibiltzen huen eta ezer ez zian egiten, uztarri-lagunik ez eta. Sei mila durotan erosi nian; harekin dozena-hamalau aurreneko postu igoal egingo nizkian.

Jon Mikel ARANO

Argoain, Laudion txapeldun. 1969. Eskubitan, makurtuta sokak sostengatzen, "Aldaba-Txiki".

Berriz-en idia drogatu zieten jokalariren

Bitxikeriak

"Ezaguna da euskaldunon apusturako zaletasuna". Artikulu hainbaten hasiera horrelakoxea da, *"Munduan asko bezala"* edota beste hainbeste ipuinen atari bezalakoxe formula.

Ipuina diot, baina bai, esana zerbaitegatik izango da, izana ere hala delako, segurasko. Handiak entzun ditugu, apustu sonatuak izan dira, Urtain zaharrarenak, "Hamaseigarrenean aidanez"koa, gordinik hau edo hura jan zuenekoa hark edo honek, e.a.

(Honekin ez dugu esan nahi euskaldunok apustuzale, pirata, kontrabandistak ez besterik izan garenik. Gure aurrekoak, orohar, langile izan dira, justukoak eta gure aldean zintzoak).

Apustuekin loturik, honako hau Seguran gertatua izan behar du. Honela moduz kontatu zidan Koldo Garmendia altzagarrak. Goierriko herri horretan iragaiten zituen udako oporrak Koldok, amonaren etxean, ume zenean (duela 20 urte-edo).

Jokua ez da errenta (Hobe oilaskoa erreta)

Behin plazara irten omen zen, jolaserako asmoz, eta han ikusia, kristoren jendetzarekin topo egin omen zuen. Eta ez- ohizko gauza. Gero kontatu omen zioten, apustu bat zen hori. Beste basa-pixtikeria bat.

Apustu hartan erabaki beharrekoa zen ea nor ezti gehiago jateko gai zen. Batek kiloko tarrokada jango zuela eta hari ekin. Koldo ez zen enteratzen eta piska batean ez zen ohartuko gizon izatearen narratskeriaz. Apostu polita zela otu omen zitzaion, gozoa.

Gizon hark, ezti guztia jan aurretik, bixaje txarra erakusten omen zuen, kolore txarrak, begiak zurian eta ezti-kaka galtza barrenetatik zeriola. Urdaila eta hesteak urtu zitzaizkion, antza. Erori zen zerraldo. Heriotz gozoena.

Lekuko gehienek berehala egin omen zuten hanka, ia bakarrik umeak, beren ezjakintasunean, geratu zirelarik. Amona hurbildu zitzaion gure lagunari "aijesusona!"ka, eta gizon guztiak ero eta harroputz batzu besterik ez zirela esanez.

Eta, nolanahi ere, bilobak amonari gizonari zer gertatu ote zitzaion galdetu ziolarik (artean Koldok ez baitzekien zer den heriotza), bada, amonak erantzun omen zion hil egin zela eta jokuak galtzen duela gizona. Umeak beste gauza bat direla eta umeei baietz, errespetua baziela, baina gizonezkoak direla aparatuak malizia-eza galtzen dutenean, eta erretolika batean, belarrietatik tiraz, etxeratu zuen amonak biloba.

Badakizue umetxook, nire amonak, berriz, jokua ez dela errenta zioen, hobe dela oilaskoa erreta. Azti ibili eta deabruak guarda zaitzatela jokutik enetxook. Agur t'erdi!

J. Arandia.

elosegi, 16 · ☎ 943 · 88 65 00
20210 lazkao · gipuzkoa

Zure zerbitzurako, LIBURUDENDA

– HAUNDIAGOTU
– EDERRAGOTU.....

–Orain arteko liburudendan (etxebehean): Liburuak, Diskoak, Kaseteak, Paprezkoak, Oparigaiak...

–Liburudendaren gainean (Lehen Etxeoinean): ERAKUSTOKI BERRIA, haundia: JOSTAILUAK, JOSTAILUAK

Adin guztietarako mota guztietako JOSTAILUAK.

ORION **BERRIA**

• FORD Mekanika-Segurtasuna: Zure Ford berria babesten duen garantia ez da bukatzen 12 hilabeteko epean, zerorrek luza dezakezu babes hori 48 hilabeteetara, dituzun beharren arabera.

• Herdoilaren aurkako 6 urterako garantia

• Bizia duen arteko garantia

• Merkatuko garantiarik onena.

MUJIKA
Automobilak

Errepide Nagusia, 1 • 419 Km.a • Tfnoa: 88 74 00 • BEASAIN

AEKrentzat noizko?

Mamian sartu baino lehen historia apur bat: 86-87 ikasturtean Beasaingo Udalak kultur etxean dituen gelak, gaur egun udal euskaltegiak dituenak, erabili genituen euskalduntze eta alfabetatze lanerako, ehun ikasletik gora izan genituelarik. Ikasturte amaieran alkatearekin zenbait elkarrizketa izan genituen, hurrengo ikasturtean udal euskaltegiak erabili nahi bait zituen gela hauek. Egoera honen aurrean guk planteiatu genion arazoa hau izan zen; prest geundela gelak uzteko, baina guk ere gela batzuren beharra genuela euskalduntze-alfabetatze lanarekin jarraitu ahal izateko. Dexente hitz egin ondoren, ahal zuen guztia egingo zuela esan zigun alkateak, eta guk ez genuen zalantzan jarri bere hitza. Gaur egun, eta handik 4 urtetara pisu batetan gaude eta gure lana aurrera eraman ahal izateko izugarrizko arazoak ditugu, nagusiena eta garrantzitsuena lokalena delarik: -Gelak oso txikiak dira eta ez ditugu nahikoak, talde guztiei erantzun egokia emateko. -Hilero alokairua ordaindu behar dugu, gastu honek guretzat izugarri suposatzen duelarik. -Subentzioa kobratu ahal izateko zentrua homologatzea exigitzen digu HABEk, eta guk ere hori nahi dugun arren, ezinezkoa gertatzen zaigu exigitzen digun m2tara ez bait gara iristen. Egoera larrian aurkitzen ginela ikusirik, berriro ere lokal eskaria egin genion Udaletxeari, eta EAJ (Euskara Batzordeburua) eta EAko ordezkarien erantzuna, literalki honakoxe hau izan da: Aretorik balego ere, erantzuna ezezkoa izango litzateke, ezen beraiek, Udal Euskaltegiaren aldeko apostua egina dutela eta Udalak hura bultzatu behar duela. Honen aurrean, Goiztiri AEKk zera adierazi nahi du: -AEKk 30 urte daramatzala Euskalerria berreuskalduntze eta alfabetatze lanean. Eta Euskalherriko zazpi herrialdetan aritu eta aritzen den bakarra. Udal Euskaltegien apostua bakarrik eginik, hola ikusten duzue posible Euskalerria berreuskaldun eta alfabetatzea? -Ondo deritzogu herriari zerbitzu bat eskaintzen dieten talde eta erakundeei aretoak uztea. Berreuskalduntze eta alfabetatzearekin ez al diogu zerbitzurik ematen herriari? Ala Udal dirua EAJ eta EArena al da bakarrik? -Beasaingo EAJ eta EAko ordezkariek euskararekiko "enpresa" ikuspegi bat dutela, eta beraien itsukerian konpetentzia arazo bezala ikusten dute AEK, euskarak gu denon eta gehiagoren beharra duenean. -Guzti honengatik zalantzan jartzen ditugu EAJ eta EAko ordezkarien euskaltzaletasuna. Eta dei egiten diegu behingoz begiak ireki ditzaten eta ikus dezaten zein egoeratan aurkitzen den euskara. Egoera honek behingoz buelta hartuko badu denon ahaleginez izan beharko duela ez eduki zalantzarik.

Arrazoiak zertarako legeen mehatxupean?

Auzmendi Tailerretatik despeditutako langileok haragian itsatsita daramagu egia hau. Uztailaz geroztik, hau da, 15 eguneko epean kale gorrian geratuko ginela jakin genuenetik, hamaika aldiz eskatu eta aldarrikatu dugu -errua ugazaba edo nagusiena izanda, gainera- arazoari irtenbide negoziatua bilatu beharra.

FELIX AUZMENDI eta CARLOS AUZMENDI Anaiek bere isiltasunaz baino ez dute erantzun. Bost hilabeteotan ez digute hitzik ere esan. Hori bai, guk ezarritako kartel eta pankarta guztiak kendu arteko onik gabe ibili dira, gauaren anparoan.

Eta azaroaren 13an, asteartea, gaueko 11ak inguruan FELIX AUZMENDIren semea, eskeilerak eta haga luze bat hartuta aritu zen guk jarritako paperak kentzen, harik eta Beasaingo Banco de Bilbao delakoaren gainean hastekotan zegoelarik, harrapatu eta argazki batzuk atera genizkion arte. Ohituta zegoen sobra ere aurreko aldietako esperientzia medio. Orduan FELIX AUZMENDI agertu zen atzetik, eskuan kateak, gu jotzera, bide batez semeari labana ateratzeko oihu eginez. Liskarrean guretako bat zauritu zuen. Egia da, inpentsan agertu zen ertzantza, baina erasotzaileak ugazabak zirela kontutan hartuz eta nahiz eta aurretik basera eramango gintuztela mehatxatu, hobe eritzi zioten erasotzaileak ere aske uztea.

Idatzi honen bidez salatu nahi dugu tolerantzia demokratikoaren izenean gure aurka xaxatu den legedia. Alde batetik Beasaingo udalaren jokaera, izan ere, herri osoa, hauteskundeetan dena zilegi dela eta, paper eta pankartaz josita zegoela, gureak bakarrik kendu bait zituzten, araudia betetzen ez omen genuelakoan, eta orain, beraien araudi hori bete arren FELIX eta CARLOS AUZMENDI minberatuta daudela eta, lehen asmoa gure pankarta kentzea izan bait da.

Salatu nahi dugu era berean ertzainaren jokaera, urratsez-urrats gainean bait dugu, ahaztuz gu garela biktimak eta FELIX AUZMENDI eta CARLOS AUZMENDI direla, hain zuzen ere, gu kalean utzi gaituztenak indemnizaziorik gabe eta langabezia miserable batez (batzuena 9 hilabetetakoa bakarrik da) eta Asegurantza Sozialari 90 miloi zor diotela. Liskar gauean bertan ere ugazaba erasotzaileen alde nabarmendu ziren. (Ez gu izan bagina kate eta labanez kalera atera ginenak, horregatik!).

Lehen esan bezala salatu nahi dugu bidegabekeria jasaten duena baztertzeko eginda egonik, langileari edozein eskubide kentzen dion legedi honen zama. Lantegi haundi bateko langileak izan beharrean bost katu baino ez garelako, borroka egin beharrean etsipenera egin dezagun gure aurka joka erazten duten legedia besterik ez da, edozein moduz, nahiz eta bere defentsan aho-betean esan tolerantzia eta demokraziaren aldeko dela.

Bide batez, eskertzen dugu elkartasun eta laguntza eskeini digun jendearen borondatea eta animatzen dugu gure egoeran dagoen edozein, beldurrik eta lotsarik gabe, jendaurrean bere arazoak salatzera. Ez legea gure alde dugulako, prexixo, arrazoia gurea delako baizik.

Despidorik ez! Adierazpen askatasuna!

Auzmendi Tailerretatik despeditutako langile taldea.

EGUNA PASA ETA GERO

Santu guziena

Esaten zuen Leonardo Vincikoak: *"Askok negar egingo die hildako gurasoei, kandela piztuak eramanez"*. Ez dira alferrik joan bostehun urte, eta orain kandelak piztu beharrean loreak eskeintzen zaizkie, eta hartara, herri txikiotan, loradendak —oraindik orain **Faulkner**ren hirian bezalaxe— hildakoen kontura bizi dira; sobra ere, maite izan ditugula beranduegi gogoratzen bait gara.

Gaur egungo gizarte zaharkitu baina berritu ezinda dabilen honetan, gaztetasunari erreberentzia, tab bihurtu da heriotza: kanposantuak herriz kanpo ezezean, deserrian daude (Beasaingoa, Alegiko berria...); gurekin lotutakoren bat hilez gero, aspaldiko fedeak indar gehiegi ez eta, pastilapean ematen dira egunik txarrenak.

Baina izan da Goierrin, Euskal Herrian eta beste kultura "tradizional" deitu askotan, herioari zor zaion errespetoa ukatzeke, izurik gabe begiratzeko biderik. (Ez al gara bada, zimiterioetan jolasean ibilitakoak!). Garai haietako nostalgiaz ez baino gure honetako tirriaz jaso ditugu, **Santu Guztiena** aitzaki, **Goierriko usadioak. Azkue**ren **"Euskalerriaren yakintza"** mardul haren estrineko liburutik.

Liburu honetan agertzen diren sineste eta ohitura zenbaitek bizitza eta heriotza elkarrekin lehian erakusten dute; lehia horretatik sortzen zen oreka. **Amezketa**n, esate baterako, ***"Bi bataiok bi eriotza zor dituela"*** erizten zioten.

Eta heriotzaren itxurazko ordenu-ezaren aurka legeak bilatu zituzten gure arbasoek ***"guztien ordua"*** igertzeko, ahalbait. Horrela, oiloa kukurruka aritu ezkero laister batean bat hilko zela eta norbait hil orduan euri haundia ari bazuen, zerura zuzen zihoala sinesten zen Amezketan. ***"Gorputz ona, euritsu"*** sobra ere.

Kanpaiei ere adi egoten zitzaizkien. Amezketa eta **Ormaiztegi**n, Azkuek honoko hauek jaso zituen:

"Sagarako ezkilekin batean orduak yotzen badu:

a) Norbait il bear duen zantzua.

b) Aste artan norbait ilgo da".

Uste zuten gainera ***"Txilindak durundi andi daukenean askok il bear"*** duela.

Bestelako zarata haundirik gabe urrutitik entzuten ziren herrietako kanpaiak, eta kanpai bidez adierazten ziren orduak bezala festa-egunak eta hildakoen gorabeherak. Oraindik Goierriko herrietan dirauen usadioa dugu hil-kanpaiarena. Bere bidez adierazten da hildakoa emakumea, gizonezkoa ala aingerua den.

Lazkaon, gizaldi honen hasieran Azkuek jaso zuenez, hildakoa gizonezkoa zenean hiru **"biko"** jotzen omen ziren (ezkila haundia eta txikia) eta emakumearentzat "biko" bi. Herri batetik bestera, dorreko kanpaiak nolako, aldatzen dira moduak, baina ez adierazi beharra.

Gaur egun, eleiza etxetik oso gertu ez badago bederen, hildakoa funerariaren autoan eramaten da. Baina oraintsu arte bide bereziak ziren horretarako auzo-herrietan. Bide hauetan eta ezta andabide ondoan ere ez zegoen etxerik egiterik. **Barandiaran**ek bere **"Mitologia Vasca"** famatuan dioenez etxea oso lotua zegoen bai eleiza eta bai kanposantuarekin ere, ikuspegi mistiko batez, eta horregatik hiru tokiak elkartzen zituzten bideak sakratuak ziren.

Bide hauei, deitzen omen zitzaien tokian-tokian **"elizbide", "gorputzbide", "ilbide", "kutzebide", "erribide", "andabide"** etab. **Urtsuaran**en **"Gurutze-bide"** izena zuen. Sobra ere, gorputza andabidean zeramatenean errespontsoa esaten omen zuen apaizak. Hildakoa, berriz, ez zen beti zerraldoan eramaten. **Ezkiogan**, konparazio batera, **"Katon"** izeneko oihalean bilduta karreatzen zituzten.

Bideekin lotuta dagoen beste usadio bat ere jaso zuen Azkuek Lazkao eta Urtsuaranen; hauetan, norbait hil eta gero bere oheko jergoia erre egiten omen zen.

Behin hildakoa etxetik atera ezkero, eta aurretik beilan eta abar, beti jendez inguratuta egon arren, ondo tajututako segizio bat biltzen zitzaion: **Caro Barojak** esaten duenez eta edozeinek gure herrietan ikusiko zuenez, zendutakoaren tarteri, auzo eta lagun gazteak eramaten zuten zerraldoa, aurretik apaiz bat eta

akolitoak hartuta. Atzean doaz alderdiko andre-gizonak (garai batean, estrina gizonak eta gero andreak) eta azkenean herria. Hala ere, badirudi gaitz arraskaren bat hedatzen zenean, tifus garaietan-eta, elizkizunetara nahiz gau-beilatara herriko jenderik zaharrena bakarrik biltzen zela, hainbestekoa izaki kutsatua hiltzen zen jendearen kopurua.

Baina hildakoa hilobiratu ondoren ere ez dira amaitzen hildako eta bizidunen arteko harremanak. Garai batean, ogia eta argia eskeiniz, e.a., edo oraindik jarraitzen diren bederatziurren eta urtebetetzeko mezekin, konparaziorako. Hala, sobra ere, ***"Ursuaranen, Seguran bezala, norbait il eta geroko onraatan saski bat auspez ta beltzez estalia izaten dute elizaren erdin eta saski-gainean katilu bat plater gainean, auspez ura ere".***

Azkuek ez du, atal horietan, Goierriko herri gehiago ematen, baina ez da zalantzarik, hemengotzaz izendatu gabeko usadio asko gure artean ere hedatuak izango zirela. Hauetxek ez dira beste batzu gogoratzeko aitzaki txarra. Izan ere, oroitzen ez dakien herri batek zer itxaron haundirik ez badu, ezta bizitzeko grina haundirik ere heriotzari aurre egiten ez dionak.

Trini Irazusta

Zegamako despektiboak (III)

Egileak ahalik eta despektibo gehien biltzen saiatu diren arren, ez dute inolaz ere esan nahi, ez eta gutxiagorik ere, denak beren bilduman daudenik (eta ez dira gutxi daudenak)edo Zegaman erabiltzen diren beste hainbeste despektibo bildu ez daitezkeenik.

Bi zati nagusi bereiztu dituzte: orokorrak eta fisikoak. Bi sail hauetaz gain baserri edo abere mundutik datozenak ere azpimarratzea garrantzitsua iruditzen zaie. Hitz hauekin, batipat, gertatzen dena zera omen da: guk bere aintzinako zentzu "errealean" ez ditugula erabiltzen. Adibidez, "Artalasto" esaten dugunean, ez dugu pentsatzen artoak lastorik baduenik ere, tonto, tontolapiko esan nahi dugu.

AJOLAGABE.- Ajólagabea. Pertsona utzia. Arduragabea. "Gue anai hori, neska, haiñ den ajolagabea, bere burue txukiñ ebaltzeko laiñ e ez ten".

AKER.- Akérra. Puntarik punta edota leku arriskutsuetan ibiltzen denari esaten zaio. "Bai, bai, puntaik punta ibiltzeko hi bezalako akerra behar dik izan".

ALAMUZKO.- Alámuzkoa. Susmagarria. Zalantzazko kalitatea ere adierazten du. "Ez iok horrei kaso haundik eiñ alamuzkoa dek eta".

ALDAKAITZ.- Aldákaitze. Nekez aldatzen dena. Gauzei ere badagokio. "Ez tet sekula ikusi zu bezelako pertsona aldakaitzik".

ALDAKOR.- Aldákorra. Erraz aldatzen dena. Gauzei ere badagokio. "Oaiñ baietz ta geroxion ezetz, hi bezelako pertsona aldakorrakiñ etzeok urrutia juteik".

ALDREBES.- Aldrébesa. Baldarra. Moldakaitza. Arraroa. Gauzei ere badagokio. "Josten baakiñala uste en baño etzekiñat aldrebesagoik ikusi ete dian labore horitan".

ALPER.- Alperra. Nagia. Herabea. "Alperra, beti gazte".

ALPERRONTZI.- Alpérrontzie. Familian, konfidantza giroan erabiltzen da. Nagia. "Tira, moitu ai horti ta goazeak ikullua, alperrontzi hori!".

ALPERTZAR.- Alpértzarra. Alper edo alperrontzi baino gogorragoa. "Danak bertan utzita aldeiñ ez tit ba alpertzar horrek!"

ALU.- Alúe. Gizatxar. Doilor. "Ixildu ai, ixildu ai, hi eoziñ aldeta jota re alu galanta!".

ALUBITA.- Alúbitea. Ikus: Alu.

AMAZULO.- Amázuloa. Amakoia. "Nayo nuke ba, nee seme hau aiñ amazuloa ez palitz!".

AMORRAGARRI.- Amórragarrie. Gogaikarria. Nazkagarria. Ernegarria. Gauzei ere badagokio. "Eon ai ixilik, ondo amorragarrie haiz motell!".

ANIMALI.- Anímalie. Astakeriak egiten dituena. Eskolagabea. "Animalie haiz geo e, eingo e pa sue koartoon?".

ANTIGUAL.- Antíguala. Antzinako erakoa. Modatik pasatua. Gauzei ere badagokie. "Emakume hoixe ondo antiguala da. Ikuste al dezu ze garaitako erropajea dakarren?".

APROETXATEGI.- Apróetxategie. Besteen bizkar bizi nahi duena. - "Akordauta eongo haiz pa Pazkua bigarrenen aintamentuk ardoa debalde emango dola?" - "Oaiñ e nundi hartuko pentsatzen ai al haiz, aproetxategi zikiñ hori?".

ARDIGALDU.- Ardígaldue. Beti atzean gelditzen dena. "Oaiñ e atzeti al hatorre, ardigaldu hori?".

ARLOTE.- Arlótea. Narratsa. Baldarra. "Txukundu ai pixkat neska, beti arlote itxuran ibil be!".

ARRO.- Arróa. Handiputz. Handiki. Uste handiko. "Ez tiat ezer jakin nahi hi bezelako arrokiñ".

ARROPUTZ.- Arróputze. Ikus: Arro.

ARTABERO.- Artáberoa. Gizon lasai eta mozolo xamarra. "Artabero horrek ez tit lanik eskutati beala etaako, taju earra zeukek!".

ARTABURU.- Artáburue. Kaikua. Tuntuna. "Horrek astoa ta mandoa ezautu ala? Artaburu horrek?".

ARTALASTO.- Artálastoa. Ikus: Artaburu.



ARTIXTA.- Artíxtea. Xelebrea. Nabarmena. Bitxia. "Ez non pentsauko gue etxekoanen holako artixtaik zeonik!".

ASTAKIRTEN.- Astákirtena. Kirten. Eskolagabe. Kaiku. "Hori dek astakirten parea! Egur hezeekiñ sue piztu nahi ez tia ba?".

ASTAPIKU.- Astápikue.

ASTAPOTRO.- Astápotroa.

ASTAR.- Astárra.

ASTO.- Astóa. *(Ikus: Astakirten).*

ATABAL.- Atábala. Emakume utzia. Axolagabea. "Gue ume hau atabal xamarra da Joxe! Nisoroko lanak eiñ bitarten sukaldeko burubirea eiteko esan diot ta oaindio len bezelaxe do".

ATSO.- Atsóa. Jenio txarreko emakumea, endreatzailea, hitzontzia. Normalean adinekoa. "Gue aldameneko atsook e etzeuken jenio earra!".

AUNDIKI.- Aundíkie. Harro. Maila sozial altuxamarrenekoen artean ibiltzea atsegin duena. "Ez tek ba usteko aundiki horrek eskuk lanen zikinduko itunik?". "Oaiñ e hor dalle aundiki hori botikario ta medikukiñ".

AUNDINAI.- Aundínaie. Gauza handiak lortu nahi dituena. Handizale. "gustora asko ikusiko noke aundinai oixe ikullun lanen!".

AUNTZEN GAU ERDIKO EZTULE EZ IZAN.- Harroa. Handizale. - "Ikusi al den Mariatxo abrigo berrie jantzi ta kalen, gora ta bera bee burue erakusten?". - "Bai, bai, ez ten hura auntzen gau erdiko eztule!".

AZAñOSO.- Azáñosoa. Liskarti. Sesiante. "Hik eta al dituk gure ardik eskortati? Hi haiz pa holako azañosoa".

AZAOSTO.- Azáostoa. Kaikua. Tuntuna. Tontolapikoa. "Hi bezelako azaostokiñ etzeok urrutia juteik".

Edurne eta Amaia Alustiza

ETXE - ALAI JATETXEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

HEGOA
TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea) ORDIZIA

TXALUPA ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA

P - 21
Kafetegia

• Sandwitx eta gosari apartak

Goierri Kalea, 21.
Zentru Komertziala. ORDIZIA

BEASAINGO TABERNARIEN ELKARTEA

Iñaki

APAINKETA ARETOA ILEAPAINDEGIA

Gudarien Etorbidea, 5-Behea. Tfnoa: 88 87 45 20240 ORDIZIA

Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54 BEASAIN

Kirol jantzietan espezialistak

kimi kirolak

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4
20200 BEASAIN

88 86 84

Urdaneta, 68
20240 ORDIZIA

Liburuak

Etxeberria Murua, Pilartxo:

"Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa": Donostia: "Mundaiz", 1990.

Majinabat aldiz entzun dugu euskarakin ez zegoela Aramatik pasatzerik, eta bada ez bada hobe izango genuela egin beharrekoa erdaraz burutzea. Pilar Etxeberria zaldibitarrak, berriz, muga asko pasa ahal izan ditu Zaldibiko bokalak aztertu hutsarekin. Ez pentsa horregatik lan makala denik!

Makala ez ezean oso bikaina dugu, eta izugarri teknikoa, beraz jakintzaren esparru estuek inposatzen dituzten mugak ezartzen zaizkio irakurle aritu gabekoari.

Doktorautza tesirako aurkeztu zuen lan honetan, Pilar Etxeberriak euskal fonetikagintzan dagoen lan esperimentalen hutsunea ahal zuen neurrian bete nahi izan du, eta horretarako Navarro Toms-ek 1925.ean egindako lana lagungarria gertatu bazaio ere, hamaika zaldibitar izan du berriemale.

Horrela, bere asmo bikain eta ondorio zehatzek merezi duten txaloagatik jaso dugu Goierritarron Liburutegian Pilar Etxeberriaren saioa.

Trini Irazusta

Iritzia

GALDERA UGARI EUSKALTZALEEN ERANTZUN ZAI

1936ko Gerra aurretik

Errepublika garaian, San Inazio egun batez gertatu zen Beasaingo Andre Mari Zerutatuaren Parrokian.

San Inazio egunak garai hartan, gaur baino ospe haundiagoa zuen nonbait gazteriarentzat. Eliza leporaino beteta. Meza nagusia latinez emana eta kantatuta orduan ohizkoa zen legez. Gazteria, orduko mugimenduei zegokionez, sentimendu abertzaleduna. San Inazio egunak esanahi berezia zuen garai hartan abertzale-munduan. Orduko Erretore eta Apaiz J.ek, ez zuten orain bezala igandero hitzaldirik egiten, zerbait berezia ospatzen zenean baizik. San Inazio eguna ordea, ezin pasa sermoirik egin gabe.

Hala bada, On Florentxio Axpe Erretore J.a, pulpitora igo eta usariozko agurra egin ondoren, honela hasi omen zen hizketan: **"...Unos me critican porque hablo en vascuence, otros porque hablo en castellano, de todas formas voy a hablar en mi lengua materna"** esan eta **espanieraz** ekin omen zion Soraluzeko seme hark.

Gezur haundi hori entzutearekin batera, koruan kokatuta zegoen gazteria, harrapaladan jaisten hasi omen zen kanporantz. Hori ikustean, berehala ekin omen zion euskaraz On Florentzio Erretoreak.

Gaur ba ote dago Beasainen, Goierrin edo Euskal Herrian, hizkuntz gatazka dagoen herrietan, beste horrenbeste bapatean egingo lukeen gaztemultzorik? Eta helduenik? Zein mailatan aurkitzen da gure erreakzio-ahalmena? Ez al gara denbora luzeegiz ematen diguten guztia irensten ohitu? Ez al dugu garaia, bilera, batzarre, hitzaldi eta gisa horretako bilguneetan horrelakoak bapatean edo antolatuta egiten hasteko? Noiz arte jasan behar ditugu euskaldunok diru publikoz espainiera hutsez antolatutako hainbat eta hainbat ekintza eta ekitaldi? Noiz arte hainbat profesional izenekoak jasan erazten diguten espainieraren erabilpena? Ez al da garaia bapateko erantzun gogorrak ematen hasteko? Ez al da garaia espainieraz euskaldunongana datorrena errefusatzeko eta baztertzeko? Ez al da garaia espainiera ulertzen dugulakoa bazterrean uzten hasteko eta galtzen ari garen gure euskal trebezia mantentzeko eta lantzeko ere, geuri zor zaigunez zerbitzuak euskaraz exijitzeko?

Andoni Sarriegi

• Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
• Zerbitzu nazionalak
• Zerbitzu internazionalak

gaur express
mensajeros-mezulariak
BEASAIN 88 89 38
88 83 17

Ondo jateko...

...“Txalupa” erretegia

21. Poligonoan, Ordiziko erdigunean, tren geltoki inguruan. 88 84 07 tfna. (Ez du ixten aste osoan).

Ahoa irekitzeko plateren ondoren, okel (haragi) erreak, arrain eta marisko aukera ugaria eskaintzen du.

Espezialitateak: endibia entsaladak, langostinoak whisky igurtziaz, txangurro piper barru-beteak, idi txuletak, Avilako saihetsak, etxeko erara urraburua (rodabailoa), bixigua, kogotea, rape eta etxeko postre askotarikoak.

Kanpoko hiru tximini metalikoetara ematen duen erretegi bikaina du ederki istalatutako sukaldean, hirurogei bat lagunentzako lekua jan-gela dotoreak eta aparkaleku dexente kanpoan.

Askotan ez bada izan ere, batzutan jan dugu bertan (eguneko menua atsegin eta merke-antxean), hamaika ogitarteko eder tartean, eta ondo-ondo jateko gure gomendioa, “txalupa” horretara behin behintzat igo zaiteztela.

Piper barru-beteak

Osagaiak: “Pikillo” piper pote bat. Litro bat esne. 120 gr. hirin. 200 gr. makailao. Gatza. Piper-hautsa eta “nuez moscada”. 80 gr. gurin.

Elaborazioa: Gurina jartzen da eta hau urtzen denean eransten zaio hirina; duen kolore txuria galdu arte. Esnea botatzen zaio ondoren eta irakin arte eragiten da. Irakiten duenean makailua botatzen zaio, puxketetan egina eta garbia, bexamelaz. Gatza eta espeziak gehitzen zaizkio eta gerorako erreserban utzi. Bexamel hotzarekin betetzen dira piperrak eta hirinetan errebozaturik frejitu. Gerorako erreserbatu.

Saltsa: Osagaiak: 2 tipula. 2 azenario. 2 porru. 6 txorizero. 100 gr. hirin. Koaka.

Elaborazioa: Barazkiak txikitu eta su-motel edo bajuan egin. Doraturik dagoenean koak txurrutada bat gehitzen zaio eta flanbeatu egiten da. Txorizeroak, hirin kutxarakada batzuk eta ura gehitzen zaizkio. Irakin dezan utzi eta eginik dagoenean pasapuretik pasa.

Txiste eta beste

Lazkaoko txinel zen batek jarriak *

Txisme berdeak

Herri batean neska bat omen zegoen, oso polita, behetik hasi eta goraino, ondo osatua; hura ikustean, gizon asko jartzen omen ziren mukia zeriela sudurretik (baina beste txisme batetik ateratzen omen da hori berotzen denean). Ba, behin batean, joan omen zen konfesatzera eta abadea hasi omen zitzaion mandamentuak galdetzen: 1.a, 2.a eta joan dira 6.enera, eta abadeak: **"Nobiorik ba al daukazu? Orduan paseatzen ibiliko zarete?".** *"Bai jauna"*. **"Musurik ematen al dizu?".** *"Bai jauna"*. **"Gero badakizu, horrela hasiaz gero, gauza grabeak sortzen dira; kontu eduki beharra dago gaur mutilekin; eta besterik ezer egiten al dizu?".** *"Bai jauna, ba, ni jartzen naiz petxuak agirian, eta berak jartzen dit aurpegia petxu artean, eta esaten dit ondo entzuten duela Radio Mosku"*. **"Ba, neuri ere gustatuko litzaidake".** *"Ba, ni bakar-bakarrik egoten naiz etxean; josten aritzen naiz"*. **"Ba, bihar arratsaldean 5etan".** *"Joaten bazera, arituko duzu, ba"*. Eta hor doa lburua irakurriz eta errezoak eginez, eta neska jarri da petxua agirian duela, eta jarri du aurpegia petxo artean, eta: **"ez dut ezertxo ere entzuten".** *"Eske, antena entxufatu gabe daukazu!"*.

***

Egun batean, neskatxo bat trenean omen zihoan eskote haundi samarrarekin, eta orduan gizon batek besoa eta ukalondoa sartu omen zion kolkoan, eta: **"Ay, que tú eres muy amable; perdoname!".** *"Si, está perdonado"*. Handik piska batera, berriro sartzen dio ukalondoa: **"Oi, perdón!".** Eta neskatxoak, *"Si tienes todo el cuerpo tan duro como el codo, te espero en el compartimento n⁰ 222!"*.

***

Alegin ba omen zen matrimonio bat. Bi edo hiru seme-alaba omen zituen, eta etxekoandreak igandetan, arkume garaian, kilo t'erdiren bat eramaten omen zuen, baina probaketan gastatzen omen zen, eta behin esan omen zioten: **"arkume osoa ekarri behar zenuke".** Hala, hurrengo larunbatean ekarri du bat osorik eta bizirik. *"Ba, hor dago arkumea, eta orain hil egin beharko da"*. **"Ba, nik esango diot harakinari, eta hark hilko du".** Hala esan dio harakinari eta baita joan ere hau, eta hil du, eta harakinaren ordaina arkume-larrua izaten da, eta galdetu dio etxekoandre horrek harakinari: *"Zer eman behar dizut orain?"*. **"Ba, guk hori larru alderako egiten dugu".** *"Ba, beste batean beharko duzu, gizona etxe inguruan dabilkit eta"*.

*** Joxe Madariaga udaltzain zaharra.**

Hitz gezidunak. (ARGIAtik).

ENBARAZUA / EUROPAKO IPARRALDEAN	↓	LASAIAK / ZIRIKATU	↓	DIOSAL HITZA / HITZ LAUA	↓	ONETS EZIN / INDIOA	↓	LAU / KAPAR	↓	SEGI / BIZK. IRATZE	↓
→		↓		↓		↓			↓	↓	
UHIN KOLPEAK / URTE ORO	→								KONTSONANTE BIKOITZA / SUBJ. DA	→	
→						DETEKTA-GAILU / ZERO	→		↓		
IPAR. AUSART / HEROI GENEROAK	→				INTSEKTU MOTA / NONGO KASUAN	↓				BOKALA / MALTZUR	→
→					↓	LABE PALA / EPEA	→			↓	
... EGIN, GOITIKA ARI / SUBJEKTU	→		ZIPOTZ / POTASIOA	→		↓		(AURR.) ITSASO / PNV	→		AURPEGIKO IREKIDURA
→			↓		AUHENA / GIPUZKOAKO AUTOETAN	→		↓			↓
OGI, HITZ ELKAR. / GAU JAIA	→		IBAI PUTZUA / FOSFOROA	→	↓				ODOLEAN / BOKALA	→	
→			↓				SORTU	→	↓		

Tetanoaren aurkako txertaketa

"Clostridium tetani" izeneko germen batek sortarazten duen gaixotasuna da tetanoa. Germen hau oso gogorra da eta lurrean aurkitzen da, nahiz eta beste zenbait lekutan ere aurki daitekeen. Gaixotasun hau harrapatzeko arriskua zauri baten kutsaduran dago. Txertoak tetanoa izatetik babesten du pertsona.

Haurrari 4 dosi ematen zaizkio 2, 4, 6 eta 18 hilabeterekin; gero 6 urterekin dosi bat jartzen da indargarri gisara eta beranduago, kutsagaitza izateko, beharrezkoa da 10 urtetik behin errepikatzea. Noiz da beharrezkoa tetanoaren aurka txertatzea?

1) Edozein zauriren ondoren, azken txertoaz geroztik 10 urte baino gehiago igaro badira.

2) Oso zikina ikusten den zauri baten aurrean, azkeneko alditik 5 urte baino gehiago pasa badira.

3) Zauri bat egindakoan, bere txerto egutegia erabat bete ez duen 6 urtez beheko haurren kasuan.

Gogoratu, alferrikakoa dela berriro txertatzea behar bezala txertatuta baldin bazaude eta azken dositik 5 urte igaro ez badira.

Miriam Berruete
(Itsasondoko medikua. "Kantillape"tik)

Inguruko herrietako ezizenak:

-ABALTZISKETA: ..... TXALBURUAK
-ALEGI: ..... TXINTXARRIAK
-ALTZAGA: ..... TXAKURRAK
-AMEZKETA: ..... EULIAK
-ARAMA: ..... IDIEZIZALEAK
-------- ..... FRUTEROZALEAK
-ASTIGARRETA: ..... BAREAK
-ATAUN: ..... OTSOAK
-BALIARRAIN: ..... ZARTAGIAK
-BEASAIN: ..... BAREAK
-BEIZAMA: ..... MAKILAK
-EZKIO: ..... MAKILARIAK. OTAMOTZAK
-GABIRIA: ..... MAKILARIAK
-GAINTZA: ..... ZAPOAK
-IDIAZABAL: ..... AZERIAK
-IKAZTEGIETA: ..... MADRIL-TXIKI
-ITSASO: ..... HARRIKARIAK. OTAMOTZAK
-ITSASONDO: ..... IJITOAK
-LAZKAO: ..... ANTZARRAK
-LEGORRETA: ..... PIKUAK
-MUTILOA: ..... TXERRIGORRIAK
-OLABERRIA: ..... DOTOREAK
-ORDIZIA: ..... AZAK
-ORENDAIN: ..... ELTXOAK
-ORMAIZTEGI: ..... HARRIKARIAK
-SEGURA: ..... ZOPAZALEAK
-ZALDIBIA: ..... ARKAKUSOAK
-ZEGAMA: ..... BELEAK
-ZERAIN: ..... XAGUAK

Foto-berri eta testu-zaharrak

Gure artxiboa osatze-ahaleginetan, sarituak izango dira foto- berri eta testu-zaharrak (edota alderantziz, foto-zahar eta testu berriak) 124. posta kutxara bidaltzera ausartzen diren guztiak.
Aipatutako kopiak, fotografikoak nahiz fotokopiak, e.a., Goierrirekin edota bertako herriekin zer ikusirik balute, hobe baino hobeto. Saria, orain arteko GOIERRITARRA guztiak ez ezik hemendik aurrerakoak ere jasotzeaz gain, publikatu egingo zaiola bidaltzaileari.

Animo!

MAIKA
jostundegia eta oihalak
P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
ORDIZIA

GARAJE "LAZKAO"
Renault
ZERBITZU OFIZIALA
Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean
San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

egin ZAK...

♫...EZ AL DAKIZU EUSKARA DELA EUSKALDUN EGITEN GAITUENA... ♪

YO PATXI IZAGIRRE IPARRAGIRRE SOY ZIENTO POR ZIENTO BAXKO

EN MI TIEMPO BAXKUENZE TAMEN HABIA, PERO TANTA HIXTORIA NO SE HAZIA. ESKERRAK QUE MI PELLO TITULO TIENE...

Atx.

APA ANDER! ZEITTEK! NOLATAN HI HEMENDIK!
EUZKADI ENPARANTZA
EUSKARAZ EZ AL DAKIK? BA ESKA ZAK!
¿OYE PELLO, TIENES UN CIGARRO?

NORA HOA KATXAS, GIMNASIOA?
EZ PELLO, EUSKALTEGIRA NINDOAN

ARRATSALDEON AITA. ZER, TELEBISTAN?
SI

POCA VERGUENTZA TIENEN DIZIENDO QUE EN LA CALLE TODO ERDALDUN COMPLETO ESS
OYE PELLO, UN ZIGARRO POR AHI PORSSEACASSO NO TENDRASS PUESS
EZ DIAT BA JAKINGO, TIRA!!
ATTE... MMM... ETA ORAIN EUSKARAZ.. BAKIK, NON BIZI GAITUK?
HITZEGIN ZAK BA.... EUSKARAZ
EGIAK IZORRATZEN AL DU BA?
BAI, HARTZAK

EUSKADIN
EUSKERAZ